

FUTBOL ZELAIAN

Neska-mutilak futbol zelaian, futbolera jolasten ari dira.

Igonek hartzen du baloia eta korrika aurrera doa. Igoneri futbola asko gustatzen zaio eta oso **trebea** da. Igonek **ostikada** ematen dio baloiari. Berak indarrez botatzen du baloia. Atezainak ezin du baloia gelditu. Igonek gola sartu du.

Ondoren, Josunek hartzen du baloia eta Imanoli pasatzen dio. Imanolek ostikada ematen dio baloiari. Imanolek **indarrez** botatzen du baloia.

Baina **atezaina** orain, eskuekin oso ondo gelditu du baloia.

-Oso ondo, Shilin!-esaten du Aitorrek. Shilin pozik dago, baina eskuak **minduta** ditu.

- Shilin! Hurrengoan **eskularruak** ekarri!- esaten dio Igonek.

1- Borobildu erantzun zuzena:

•daude.

o Gelan..

o Jolastokian.

o Futbol zelaian.

Neska-mutilak.....

o Futbolera jolasten ari dira.

o Tenisera jolasten ari dira.

o Saskibaloira jolasten ari dira.

Igoneri.....

o Saskibaloia gustatzen zaio.

o Igeriketa gustatzen zaio.

o Futbola gustatzen zaio

Igone.....

o Iker eta Janirerekin jolasten ari da.

o Jana eta Nahiarekin jolasten ari da.

o Josune, Imanol, Aitor eta Shilinekin jolasten ari da

Igonek.....

o Baloia saskian sartzen du.

o Baloia ez du atean sartzen.

o Baloia atean sartzen du.

2- Borobildu BAI ala EZ.

- Igone futbolera jolasten ari da.

BAI EZ

- Jon, Ane eta lanekin jolasten ari da.

BAI EZ

- Igoneri futbola gustatzen zaio.

BAI EZ

- Igonek baloia Mikeli pasatzen dio.

BAI EZ

- Igonek baloia atean sartzen du.

BAI EZ

3- Non daude neska-mutilak jolasten?

Neska-mutilak _____

4- Zertara ari dira jolasten Igone, Josune eta Shilin?

Igone, Josune eta Shilin _____

5- Zer gustatzen zaio Igoneri?

Igoneri _____

6- Norekin jolasten du Igonek?

Igonek _____

7- Nork sartu du baloia atean?

Baloia atean _____

8-Beltzez idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

9- Hurrengo esaldiak osatu:

- Igone _____ jolasten ari da.

(futbolera, harrapatzera, saskibaloira)

- Igoneri _____ gustatzen zaio.

(tenisa, igeritokia, futbola)

- Igonek _____ baloia sartu du.

(atean, saskian, putzuan)

10- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

baloia indarrez du Imanolek botatzen
